


# Triodo Banken Akzio-Gordailuen Ziurtagiriek (AGZ) kaltetutakoen Plataformaren aurkezpen Komunikatua.



## Zergatik dago Akzio-Gordailuen Ziurtagiriek (AGZ/CDA) eragindako pertsonen plataforma?

Plataforma, Triodos Bank-en Akzio-Gordailuen Ziurtagirien (AGZ) Espainiak: o titular garez, bankuak: bere komertzializazioa blokeatzeko aldeak: arreak: arbitrarioriki % 30eko balio-galera eragiteak: eta balioa are gehiago jaitsi duen (%75 inguru) merkatu espekulatibo batean parte hartzera behar izanak: sortu desengainu eta ondoezaren ondorio da.

Espanian 7.420 pertsona fisiko eta 179 titular juridikori eragiten dio, 41.532 pertsona eta 1.727 titular juridikori Europan (Herbehereak, Erresuma Batua, Belgika eta Alemania). Balio osoa 1.200.000.000 eurotik gorak:oa da.

Triodoseko bezero askok, bankuak: berak eskatuta, gure aurrezkiak: AGZetan jarri genituen. Bankuak: etikotzat jotak: o beste balio batzuekin hatera ingurumena errespetatzen duten, ekonomia sozial etajasangarriko proiektu sozialak: burutzen laguntzeko. Horixe zuten beraien lehen argudio komertziala.

Banku-produktu horren aldeko beste argudio bat Triodos Bankek bere bezeroek osatutak: obarne merkatua zuela zen, eta hala, gure aurrezkiak ez liratekeela inoiz merkatu kotizatuetara joango (burtsa motara kasu), merkatu horien espekulazioarengatiko lurrunkortasuna ekidinez.

Produktuaren deskribapenean honela zioen hitzez hitz: "AGZen errentagarritasuna bankuaren akzioei lotua dago.. Beraz, Triodos Banken ekitaldi bakoitzeko emaitza ekonomikoen arabera da. Errentagarritasun hori aldakorra da, eta baliteke nulua izatea bankuak mozkinik lortzen ez badu, orduan ezin baitateke banatu ezta AGZen balioa handitu banatu gabeko mozkinekin. Errentagarritasun historikoa positiboa izan da, nahiz eta iraganeko errentagarritasunak inoiz duten izan etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen. "

Azken urteotan, Triodos Bankek emaitza ekonomiko positiboak: izan ditu. 27,2 milioi euroko irabaziak: izan dira 2020an, 50,8 milioi euro 2021ean, 49,9 milioi euro 2022an eta 35,2 milioi euro 2023ko lehen seihilekoan.

## Zer gertatu da AGZekin?

- 2020ko martxoaren 18an, Triodos taldeak: AGZen merkaturatzea bertan behera uztea erabaki zuen, ornen pandemiak: eragindak: o gehiegizko salmentan arrazoituz, baina arrazoi horiek ez ditu inoiz ez kuantifikatu ezta justifikatu bankuak:.
- 2020ko urriaren 13an, Triodos taldeak: berriro ireki zuen merkaturatzea, salmenta 5.000 eurora murriztuta titular eta aste bak:oitzeko. Ondoren, 2020ko urriaren 27tik aurrera, 1.000 euro tara jaitsiz.
- 2021eko urtarrilaren 3an, Triodos Bankek berriro blokeatu zuen AGZen komertzializazioa, azkenean behin betikoa bihurtuz.
- 2021eko abenduaren 21ean, Triodos Bankek aldebak:arrez bi aldak:eta iragarri zituen:
  1. % 30eko murrizketa AGZen prezioan, arrazoi "fiskalengatik", beren balioa bankuaren ak:zioen kontabilitate-balio garbiarekin bat etortzeko konpromisoa hautsiz.
  2. AGZak: negoziatzeko, eskaintza eta eskariaren mugimendu espekulatiboen mende dagoen "Kanpoko plataforma" bat sortzea.
- 2023ko apirilaren 3an Triodos taldeak zera jak:inarazi zigun: AGZ negoziatzea berrabiarazten zuela Negoziazio Sistema Aldeaniztun baten bidez (NSA), Captin inbertsio-zerbitzuen enpresak kudeatua. NSAa 2023ko udan abiatu zen eta, harrezkero, gutxi <lira plataforman negoziatzen diren AGZ salerosketa proposamenak: . AGZa baten balioa 20 € inguruan kokatzen da; aldiz 2020an, aldebakarreko itxieraren aurretik, balorazioa 80 € inguruan egiten zen. AGZen titular gehienak ez gara Captinen erregistratu ez dugulako sistema hau onartzen.

## Bide juridikoa, irtenbide bakarra, arrazoa ematen ari zaigu

Triodos Bankekin gure dirua berreskuratzeko irtenbideak adosten saiatu gara, bakarka baita lankidetzan jarduten dugun Herbehereetan (Triodos Banken egoitza nagusia) zein beste lurralde batzuetan eraturak: o elkarrekin bidez. Baina Triodos Bank ez zen batere mugitu NSArako bidean eta orain ez <lago atzerabiderik hartzeko prest. Beti ukatu dituzten erreklamazio formalak aurkeztu ditugu, inoiz AGZk erostean hitzemaña bete ez dutela onartu gabe.

Demanda judizialaren bidea besterik ez zaigu geratu, Espainian ehunak titularrek jada hasi duguna. Badakigu bide hau motela dela, baina 2024ko otsailaren erdialdean, Eragindakoen Plataforman lehen auzialdian izandak: o 129 epairen berri genuen, horietatik 76 (% 59) demandatzailearen alde eta epai gehiago ezagutu hala gure aldeko %a handitzen doa. Triodos Bankek guztien aurka helegitea aurkeztu du, baina adierazgarria da dagokion Entzutegi Probintzian data ezarria zuten batzuetan helegiteok kendu dituztela. Ez al da izango argi dutela galduko dutela eta denbora irabazten besterik ze direla ari?

## Ondorioak

AGZak ,nahiz eta ez berehala baina edozein unetan sal zitezkeelak: o eta haren balioa Triodos Bankekin estuki lotua zuelako erosi genituen. Hala ere, bankuak kontratuzko arauak aldebakarrez aldatu ditu eta 4 urtez gure aurrezkietara iristerik gabe daramatzagu. Bien

bitartean, irabaziak iragartzen jarraitzen du bankuak.' AGZk produktu konplexuak direla ikusi da eta haren izaera eta funtzionamendua, gure herrialdean hainbeste kalte eragin zituzten

lehenasunezko partaidetzen antzeko da. Legeak: finantza-erak:unde batek txikizkako bezero bati produktu konplexu merkaturatzen dionean, arriskuak: (halak:orik bada) oso ondo azaldu behar dizkiola zehazten du. Ezin da izan, gerora edo ezustean, hasera batean informatu gabeko arrisku hauek izatea. Eta aldebakarrez ezarri duten salerosketa-sistema berria espekulatiboa izateaz gain erabat ez eraginkorra suertatu da. Aldez aurretik jak:inean bageunde ez genuke inoiz produktu bankario hau kontratatuko.

Triodos Bankek kontratua betetzen ez duenez, kontratuak: baliogabetu eta gure aurrezkiak: berreskuratzeko borrokan ari gara.

## Non aurki gaitzakezun?

Web: <https://plataformadeafectadostriodos.org>

correo-e: puedes unirte a nosotros escribiendo a [unirme@plataformadeafectadostriodos.org](mailto:unirme@plataformadeafectadostriodos.org).

Beste kontu batzuetarako, idatzi: [info@plataformadeafectadostriodos.org](mailto:info@plataformadeafectadostriodos.org)

Telegram: [Afectados CDA TRIODOS](#) //

Instagram: [@afectadoscda](#)

Facebook: [Plataforma de AfectadosCDAs Triodos](#) //

Twitter: [@AfectadosCDA](#)

## Gehiago jakiteko:

Pillados en la banca ética: "Creí financiar la comida ecológica y he perdido mis ahorros." El Confidencial, 16/03/2022 [https://www.elconfidencial.com/empresas/2022-03-16/triodos-afectados-cdapreferentes-financiero\\_3391424/](https://www.elconfidencial.com/empresas/2022-03-16/triodos-afectados-cdapreferentes-financiero_3391424/)

Triodos afronta en los tribunales la batalla por el bloqueo del dinero de sus inversores. elDiario.es, 23/10/2022 [https://www.eldiario.es/economia/triodosafronta-tribunales-batalla-bloqueo-dinero-inversores\\_1\\_9633843.html](https://www.eldiario.es/economia/triodosafronta-tribunales-batalla-bloqueo-dinero-inversores_1_9633843.html)

Triodos Bank provisiona 1,3 millones por riesgos legales de sus CDA. Expansión, 19/08/2022.<https://www.expansion.com/empresas/banca/2022/08/19/62feb328e5fdeac8138b45ab.html>